

Merkataritza elektronikoak gora egiten jarraitzen du 2015ean Euskal AEn, bai zifra ekonomikoetan bai erabiltzen duten enpresen portzentajea

Euskal enpresen % 26,4k erabili zuten merkataritza elektronikoa, iaz baino % 1,6 gehiagok, alegia, eta salmentek ere % 13, 3 egin zuten gora

Eustaten datuen arabera, gora egiten jarraitzen du merkataritza elektronikoak Euskal AEn, bai zifra ekonomikoetan, eurotan, bai erabiltzen duten enpresen ehunekoan. Hala, enpresen % 26,4k erabili zuten 2015ean merkataritza elektronikoa, iaz baino % 1,6 gehiagok.

Sarearen edo bestelako sistema elektronikoen bidez, esate baterako, posta elektroniko bidez edo datu elektronikoen elkartrukearen bidez (EDI eta bestelako sareak), sortutako negozio-bolumena 13.732,6 milioi eurokoa izan zen egindako salmenta elektronikoei dagokienez, eta 10.518,0 milioi eurokoa egindako erosketei dagokienez.

Iazko zifrekin alderatuta, merkataritza elektronikoaren bidezko salmentak % 13,3 igo ziren Euskal AEko enpresetan, eta % 12,8 sistema hori bera erabiliz egindako erosketak.

1. taula: Merkataritza elektroniko bidez egindako erosketak eta salmentak, lurraldearen eta enplegu-geruzaren arabera

	Erosketak (*)			Salmentak (*)		
	2014	2015	%	2014	2015	%
Euskal AE	9.326,1	10.518,0	12,8	12.124,6	13.732,6	13,3
Lurralde historikoa						
Araba/Álava	1.578,5	1.767,1	11,9	3.809,6	4.376,4	14,9
Bizkaia	4.772,1	5.426,5	13,7	4.413,3	4.975,8	12,7
Gipuzkoa	2.975,5	3.324,4	11,7	3.901,7	4.380,4	12,3
Enplegu-geruza						
0 - 9	3.009,4	3.347,8	11,2	2.165,5	2.523,8	16,5
≥ 10	6.316,7	7.170,2	13,5	9.959,1	11.208,8	12,5

(*) Euroak, milioikotan

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

Lurraldeak aztertuz, ehunekoak oso antzekoak badira ere, Bizkaia nabarmentzen da, lurralde horretan egin baitute gora gehien erosketak elektronikoen 2015ean, % 13,7, alegia, eta salmentek, berriz, % 12,7. Bestalde, Araban egin dute gora gehien salmentek, % 14,9, hain zuzen, eta erosketetan izandako igoera % 11,9koa izan da. Gipuzkoari dagokionez, erosketak elektronikoen % 11,7ko igoera izan da eta salmentetan % 12,3ko hobekuntza.

Lurralde bakoitzaren pisua aztertuta, ikusten da hiru lurraldeen artean antzera banatzen direla salmenta elektronikoak, nahiz eta Bizkaiak duen ehunekorik handiena (Autonomia Erkidego osoko % 36,2), eta Gipuzkoak eta Arabak parte-hartze bera dute aurren, % 31,9koa, alegia. Erosketetan, aldiz, Bizkaiak kopuru osoaren % 51,6 bereganatzen du 2015ean, Gipuzkoak % 31,6 eta Araba, berriz, Euskal AEn egindako erosketen % 16,8rekin geratzen da.

Establezimenduen tamainari erreparatuta, 10 langile edo gehiago dituztenak dira merkataritza elektronikoan diru gehien mugitzen dutenak: salmenta guztien % 81,6 eta erosketak guztien % 68,2.

Merkataritza elektronikoan parte hartzen duten Euskal AEko enpresen ehunekoari dagokionez, 2015ean % 1,6 egin dute gora, eta gaur egun % 26,4 dira. Ikusten da, gainera, zifra ekonomikoen arabera salmenta elektronikoak erosketen gainetik badaude ere, baliabide elektroniko bidez erosketak egiten dituen enpresa-kopurua, % 23,9, baliabide hori bera erabiliz saltzen duena baino askoz ere handiago dela, % 6,5, alegia.

2. taula: Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen bilakaera %

	Establezimenduak guztira														
	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Salerosketa elektronikoa	3,0	4,4	5,1	7,7	10,5	12,8	15,3	15,0	14,9	15,1	17,3	19,7	21,6	24,8	26,4
Erosketak	2,7	3,6	4,3	6,9	9,6	11,4	14,1	13,9	13,8	14,2	16,1	18,0	19,7	23,1	23,9
Salmentak	0,4	1,3	1,4	1,7	1,9	2,9	3,6	3,4	3,4	3,9	4,1	4,6	5,2	6,0	6,5
Erosketen gaineko (*)	9,6	11,4	17,4	15,2	15,5	18,2	20,7	22,6	24,9	28,1	30,8	33,7	29,4	30,6	31,3
Salmenten gaineko (*)	9,9	16,1	20,6	22,0	24,6	24,4	23,1	26,9	32,5	38,6	39,3	36,6	35,9	38,9	36,8
10 langile edo gehiago															
Salerosketa elektronikoa	6,4	10,0	10,9	13,6	19,5	20,4	24,0	22,2	23,7	23,1	24,9	27,7	27,5	28,8	30,0
Erosketak	5,1	8,3	8,7	11,2	17,3	17,7	21,4	19,1	20,2	20,3	21,4	23,6	23,4	25,0	25,3
Salmentak	1,8	2,8	3,7	4,2	5,1	6,4	7,8	8,0	8,0	8,5	9,8	10,4	10,0	10,8	11,4
Erosketen gaineko (*)	4,6	10,6	9,6	12,1	10,3	12,6	15,8	15,3	20,3	24,6	30,8	33,7	27,0	28,3	31,0
Salmenten gaineko (*)	12,7	13,4	15,5	15,0	19,4	21,7	31,5	28,6	34,2	38,4	40,9	42,8	36,2	37,8	42,6


(*) Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduetan, erosketa eta salmenta guztien gaineko erosketa eta salmenta elektroniko bidez besteko %

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

Kalkuluen arabera, 43.700 dira Euskal Autonomia Erkidegoan merkataritza elektronikoa erabiltzen duten establezimenduak. Prozedura horren bidez egindako erosketak erosketak guztien % 31,3 dira eta salmentak, berriz, salmenta guztien % 36,8.

Zifrak aldatu egiten dira enpresen tamaina kontuan hartzen bada. Eta, esate baterako, 10 langile edo gehiago dituzten enpresen % 30,0ek erabiltzen dute merkataritza elektronikoa, iaz baino % 1,2 gehiagok. Segmentu horretan ere askoz ere gehiago dira erosketak elektronikoak egiten dituztenak, % 25,3, eta pisu gutxiago dute salmentak bide hori erabiliz egiten dutenak (% 11,4). Biek egin dute gora aurren, % 0,3 eta % 0,6, hurrenez hurren.

1. grafikoa: 2015eko salmenta elektronikoak, erabilitako bitartekoaren arabera (%)




Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

Erosketa elektronikoak egiteko erabilitako baliabideari dagokionez, % 45,4 posta elektroniko bidez (e-mail) egin dira, % 30,4 EDI eta bestelako sareen bidez, eta gainerako % 24,2 web-orrien bidez. Salmenta elektronikoaren kasuan, berriz, % 47,6 EDI eta bestelako sareen bidez egin dira, % 28,0 posta elektroniko bidez eta % 24,4 web-orrien bidez.

Merkataritza elektroniko bidez 2015ean egindako salmenten bezero-motari dagokionez, salmenta elektronikoaren % 78,5, hau da, gehienak, beste enpresa batzuetara bideratu dira (B2B izeneko merkataritza), % 20,8 kontsumitzaile partikularretara (B2C) eta gainerako % 0,7 beste batzuetara, esate baterako, administrazio publikoetara (B2G).

2. grafikoa: 2015eko salmenten helburua, bezero-motaren arabera (%)



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62
Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak; prentsa ohar gehiago
Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak; datu-bankua